

GEBehatokia, NBERen txostenean onartua duela gutxi aurkeztutako azterlan-bateko iturri moduan, Giza Eskubideen Kontseiluaren 60. bilkura-aldiko, giza eskubideei eta birgizarteratzeari buruzkoa espetxeratuta dauden pertsonen inguruan.

Harrerak emandako datuetan oinarrituta, GEBehatokiak Nazio Batuen Erakundeari kondena luzeak baldintza zinez gogorretan bete ondoren askatutako pertsonak aurre egin beharreko zailtasunez.

Kontseiluak, Giza Eskubideen Nazio Batuen Erakundeko Nazio Batuen Eskubideen aldeko Goi Komisarioaren Bulegoari (GENBGK) eskatu zion azterketa¹ sakon bat egitea, gomendio praktikoekin, giza eskubideen eta atxilotetatik askatutako pertsonen birgizarteratze eta askatasunik gabeko pertsonen inguruan. Hau, onuren ebaluazio eta oinarritzko zuzentzarauak garatzen joateko alde interesatuen kontsultetan oinarrituta egitea eta aurkezteko eskaera egin zitzaion Kontseiluaren 60. saio aldian.

Horretarako, aditu, gizarte zibil eta biktimen parte hartzeaz gain, GENBGK ekarpenen deialdi bat argitaratu zuen. Hala, 87 aurkezpenen azterketan oinarritzen da txostena zeinak Nazio Batuen web orrian dauden eskuragarri. Aurkezpen horien artean dago Giza Eskubideen Behatokiak egin zuena, zeinak laburtuta, Euskal Presoek askatasuna eskuratzean jasaten dituzten zailtasunen berri ematen zen, besteak beste instituzioen laguntza eskasa aipatuz, zeinak erraztu beharko luketen oinarritzko kalitate irizpide batzuen baitan bizitza antolatzea, askotan 20 urteko espetxe zigorrak garaitzen dituzten pertsonak izanda.

Hain maila handiko txosten batean aipatzeak bultzada handia ematen die hemen kolektibo honen alde lan egiten dutenei, txosten honen oinarrietako bat bihurtuz, zeinak besteak beste ondorengoa gomendatzen dien Estatuiei:

- (...) berrintegrazio-ekimenak integralak, iraunkorrak, inklusiboak, indibidualizatuak eta gehien kaltetutako pertsonen beharrei erantzuteko izan behar dute. Gainera, modu eraginkorrean heltzen die atxilotetatik aske geratu diren edo pribatiboak ez diren neurriak dituzten pertsonak jasaten dituzten oztopen garapenean, bereziki estigma, diskriminazioa eta bazterketa.
- (...) berrintegrazio-programa eraginkorrenak dimentsio anitzeko ikuspegia hartzen dutela, eta berehalako zein epe luzeko beharrei erantzun. Horrek barne hartzen du liberatu aurreko plangintza sendoa, oinarritzko beharrak asetzea, hala nola elikadura, etxebizitza eta arreta medikoa, eta enplegu-aukerak. Programa eraginkorrek birgizarteratze komunitarioa ere sustatzen dute, diskriminazio sistemikoari aurre egiten diote eta diseinu eta inplementazioan esperientzia propioa duten pertsonak inplikatzeko dituzte. familiarren parte-hartze konstruktiboa, genero-ikuspegidun estrategiak emakumeentzat eta herri indigenentzako oinarri kulturala duten ikuspegi komunitarioek are gehiago hobetzen dituzte emaitzak.

¹ A/HRC/60/55: Human rights and the social reintegration of persons released from detention and persons subjected to non-custodial measures - Report of the Office of the United Nations High Commissioner for Human Rights (Advance edited version) <https://www.ohchr.org/en/documents/thematic-reports/ahrc6055-human-rights-and-social-reintegration-persons-released>

Funtsezkoa da ebaluazio-esparru sendoak dituzten programek beste batzuk baino askoz ere txikiagoko berrerortze-tasak izatea. Horrek adierazten du ebidentzietan eta eskubideak baitan oinarritutako estrategiek duten garrantzia.

- Egungo arau-esparrua egonda ere, giza eskubideak oinarri izango dituen ikuspegia duen orientazioa behar du birgizarteratzeak. Orientazio praktiko argiak behar dira dauden giza eskubideen arauak eta estandarrak praktikan jartzeko, erakundeen gaitasuna, borondate politikoa eta egoera hauek jasan dituzten pertsonen parte-hartze zuzenarekin politiken diseinuan. Berrintegrazio-ahaleginak zatikatuta egon ohi dira, funts nahikorik ez dute izaten eta gizarte zibilaren baitan egoten dira modu nabarmenegian. Gainera, espetxean egon diren pertsona askok babesa karitate gisa ikusten dute eskubide moduan baino.

Gomendio guzti hauek Harrera egiten ari den lana berrestera datoz. Elkartek honen ahalegina kolektibo honi behar bezala akonpainamendua egiteko eta txosten honetan ondorioztatu den bezala, Administrazio Publikoek sustatu eta bultzatu behar dute, modu horretan askatasuna lortzen duten pertsona guzti hauek dituzten premia eta behar desberdinei erantzutea.